

Neoliberalismoak euskarari (eta II)



Zigor Etxeburua
Urbizu

KONTSEILUKO TEKNIKARIA
@zetxeburua

Hizkuntza-liberalismoak Euskal Herrian baditu jarraitzaileak. Ideologia horren erakusle duzue orain hiru urte Gipuzkoako udal kozkor batean gertatutakoa. Batzorde batean, galdera euskaraz egiten hasi zen herritarri jarduna moztu eta gaztelaniaz egitea eskatu zion euskarako zinegotziak, bileran euskaraz ez zekien jendea bazegoela esanaz. Berriki ere, neuri erantzun dit gure hiriko euskarako zinegotziak ezin dudala pretenditu herritarrekin egiten diren udalaren batzarretan itzulpeneko sistemak erabiltzea, “horretarako behar dugu Euskaraldia” (hitzez hitz).

Ezaguna da ere funtzio publikoan euskararen beharra zalantzan jartzen ari direnen leloa. Berriki, batek liburua argitaratu du eta adierazi du: “Ez da behar inolako araurik funtzio publiko sarbidean. Inolako esku-hartzerik gabe lortu beharko litzateke oreka, gizarteko euskaldunen eta lan publikoetakoen artean”. Alderdi berekoak dira honakoak esan dituztenak ere: “Euskaraz bizitzea ez da oinarrizko eskubidea, hautu pertsonal hutsa baizik”; “euskararen inguruko adostasun soziala eta gizarte hausturirik ez izatea aldeztu ditugu, euskaldunak gutxiengoaren diren arren”. Trumpek ez zuen hobeki adieraziko.

Koldo Mitxelenak izena jarri zion botere publikoaren jarrera horri: tolerantzia. Liberalismo

ekonomikoarekin parekatu zuen eta zehaztu zuen ez-egitean (omisioa) oinarritzen dela, ardurarik ez hartzean. Horren eraginez, hizkuntza batzuk lehenesten dira eta beste batzuk bazterrean uzten dira. Bere azalean pairatu behar izan du ideologia hori Arkaitz Zarragak, isuna jarri baitiote udaltzainari euskaraz egitea aginteari errespeturik ez erakustea dela leporatuta. Okerrena da, Arkaitzen hitza zalantzan jarri duela udalak, korporatibismoarekin makurrena erakutsiz. Nik sinesten dizut.

Jose Mari Zendoiak adierazi zuen, bere doktore tesian, neoliberalismoa antisoziala dela, askatasunaren izenean herritarren bultzatzen dituelako haien artean lehiatsuak izatera. Bada utikan kapitalismoaren kume diren ismo horiek guztiak. Euskara bizia zor diegu pasa digutenei, eskuratzeko ahalegina egin dutenei, geure buruei eta datozeniei. Horregatik, euskararen alternatibak eraldatzaileak behar du izan, hitzun kopuruz txikiak direnak handi egingo dituenak, bagarela nor sinesten duen herri gogoan oinarri hartua, naturala eta kontzientziaduna, Euskal Herria euskaratik eta euskaraz egiteko. Bertako kultura eta hizkuntza indartuz eta hedatuz, eta gure egoeran diren gainerako herriekiko samurtasuna adieraziz eta elkartasuna praktikatu, mundu hobea egingo dugu, mundu anitz eta bidezkoagoa. ■

Zozogailuak



Edu Zelaieta Anta

IRAKASLEA ETA IDAZLEA

Dendak itxi aurretik mandatua egitea izan da hirian bakarrik ibiltzeko aitzakia. Erraz onartu diote etxean, mandatua egitetik bueltan, tabernaren batean gelditzea besapean daraman Julio Ramón Rybeiroren liburuari tarte bat eskaintzeko. Euri pixka bat ari badu ere, kontent doa E. bere bakardadetxo bilatuan.

Egin beharreko erosketa eginda, momentuaren pribilegioaz jakitun, ongi aukeratu nahi du pausa-lekua. Duela zenbait urte sartu gabeko ostatuan sartu da, lasaia eta argitsua delakoan. Barrara hurbildu orduko solasean hasi da bistaz ezagutzen duen jabearekin. Hogeita

lau urte joan dira negozioa irekirik, eta, nahiz tabernak lehengo itxura orokorrari eusten dion, hiru aldaketa egin omen dituzte azken urteotan: paretako kolorea aldatu (hori argitik berde argira), billarrean egiteko atzealdeko lekua itxi (norbaitek jokatu nahi badu, aski du eskatzea) eta pantailak jarri (telebista bakarra lehen; lau pantaila orain).

Agudo egin du E.-k aldaketen gaineko ebaluazio mentala: kolorearena izan da gehien gustatu zaion erabakia; billarraren txokoak aspaldixko itxia dirudi; eta lau zozogailuak Rayo Vallecano-Leganés ematen ari dira. ■